

BANDOA (B21-2020)

2020KO SAN JUAN BEZPERAKO SUAK

COVID-19k eragindako osasun krisiaren ondorioz, alarma egoera ezarri zen, eta 2020ko ekainaren 21ean amaituko da. Hala ere, pandemia ez da amaitu, eta beharrezkoa da zuhurtasun eta babes irizpideekin jarduten jarraitzea, prebentzio eta euste neurriak hartuz, herritarren osasunaren babesa bermatzeko.

Testuinguru horretan, hurbil dago San Juan su tradizionalak egiten diren eguna, ekainaren 23a, eta pertsona multzoak saihesteko, multzo horiek dakarten arriskuarekin, indarrean jarraitzen duten prebentzio eta higiene neurriak (pertsonen arteko distantzia, maskarak, etab.) errespetatzen ez direlako, nire eskumenak erabiliz,

JAKINARAZTEN DUT:

1. 2020ko San Juan bezperako suak ez dira onartuko espazio publikoetan.
2. Gune pribatuetan egiten diren ospakizunek gobernuko agintariak ezarritako prebentzio eta higiene neurriak bete beharko dituzte.
3. Arduraz joka dezagun, beharrezkoak ez diren arriskuak saihestuz.

Bera, 2020-06-18
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña